

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 161. alea - 2012ko martxo




Uhinez uhin, arraun
zaletasuna berpiztuz

MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 39

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 918 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

MAZZANTINI
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

Informática
Tratamtu informatika

Electronica
Osagai elektronikak

Tel.: 943 19 17 83
Fax: 943 19 18 36
Mugikorra: 688 939 601

Maipo kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

e-mail: jk@informatikajelektroika.e.telefonica.net

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte
Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorransoro,
Lukax Dorransoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Ander Salegi
Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua
Banaketa arduraduna:
Juanma Oiartzabal
Inprimategia:
Euskalinpri
Tirada:
1.400 ale
Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

argitaratzaileak



laguntzaileak



Debako Udala


Gipuzkoako Foru Aldundia



Ander Salegi



Unai Idiakez



GFA



Ander Salegi

KOLABORAZIOA: Maite Rodriguez, "Japonia". **05**
ALBISTEAK: Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan. **07** **INDUTERRAK 2012** **08-09 BERRIKETAN GAZTEA:** Atzegi elkarte, Institutuko liburutegiko nobedadeak... **11-14 KRONIKA:** Udazkeneko elika-

Praileaitz I haitzuloaren indusketa arkeologikoaren zuzendariorde izan den Sonia San Joseren iritzia jaso dugu. **10**

gaiak... **15 LABURRAK:** Gipuzkoako Batel Ligako seigarren jardunaldia, Debako hondartzan duna bat sortzeko proiektua... **16-17 ZERBITZUAK:** **18**

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Zuhatza Euskara Elkartearen batzar orokorra martxoaren 27an izango da

Zuhatzakide agurgarria:

Lerro hauen bitartez urteko Bazkideen Batzar Orokorrerako deialdia egiten dizugu. Bertan, 2011. urteak eman duenaren berri eman eta etorkizunerako ditugun berriak zurekin (BAZKIDE) konpartitu eta adostu nahiko genituzke. Batzarra datorren martxoaren 27an egingo da, arratsaldeko 19:00etan, Zuhatzako bulegoan (Iifar kalea 12, behean). Hitzordura hurbiltzerik ez baduzu, zure proposamen, kritika

edo iradokizunen berri emateko Zuhatzaren bulegotik pasa edo gurekin harremanetan jarri (943 19 13 83).

Batzarrean 2011ko gestio balantzea eta 2012rako egitasmoak eta aurrekontuak azalduko dira (betiko legez, galdera-erantzunentzako zein iradokizunentzako tarterik ere izango da).

Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamikari jarraipena eman ahal izateko, Zuhatzak behar-beharrezkoa ikusten du elkarteko

bazkideen inplikazioa zein babesa.

2011garrena urte oparoa izan da euskararentzat, eta hori denon borondateari esker lortu da. 2012an ere ildo beretik jarraitzeko asmoz, hurbil zaitez Zuhatzara, gurekin batera hau guztia egitera. Ateak zabal-zabalik dituzu!

Besterik gabe, martxoaren 27ko batzarrean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaitugu.

Zuhatza Euskara Elkartea

ARGAZKI ZAHARRA

Nikolasa eta Anizeta Esnaolaren jostundegian



1914 inguruan Nikolasa eta Anizeta Esnaolak jostundegia zuten Deban. Bertan, lan horri dagozkion ikasketak ere egiten ziren. Argazkian lantegian aritzen zirenak ageri dira.

Ezkerretik hasita, atzeko ilaran: Nikolasa Esnaola, identifikatu gabea (zutik, manikiaren alboan), Joakina Mugika, Pilar Salegi eta "Goikoetxekua". Aurreko ilaran, berriz, hauek ageri dira: Saturnina Esnaola, identifikatu gabea, Anizeta Esnaola eta Eugenia Mugika.

Miren Izagak emana.

Iturria: Egun Zaharretako Deba liburua.

MAITE RODRIGUEZ

JAPONIA

Japonia 6.852 irlako artxipelagoa da. Populazio itzela dauka, 130 milioi lagun. Herrialdearen %73 inguru mendi eta basoz betea dagoenez, populazio gehiena kostaldean bizi da, dentsitate handiko hirietan. Munduan, 100 pertsonatik 2 japoniarrak dira.

Kultura aberats, berezi eta bakarra daukate. Gaur egun, herrialde oso aurreratua da. Dikotomia eta kontraesan bezalakoak lurrean daude. Aspaldiko ohitura eta tradizio askok bizirik jarraitzen dute; sumo, kabuki, ikebana eta origami dira horietako batzuk. Adibide xeble batzuk ere badaude horien artean:

Kaiga, margolaritza tradizionala da. "Kanagawako olatu handia", adibidez, Edo garaiko artelan ezagunenetakoa da. Txalupak olatu erraldoiak zeharkatzen erakusten ditu, Fuji sumendia atzean duela. He-Gassen ere garai berekoa da (duela 400 urte ingurukoa), baina paisaia ederrak beharrean, puzker gerrak irudikatzen ditu (ikusirik irudia).

Washoku sukaldaritza tradizionala da. Sushia eta sashimia oso ezagunak dira mundu guztian. Sashimian erabiltzen den ezohiko arrainetako

bat fugu da. Oso pozoitsua da, gibela batez ere. Japoniako enperadoreak debekatua duen jaki bakarra da. Sukaldariek prestatu ahal izateko 7-10 urteko praktikak egiten dituzte. Jatetxe eta dendetan saltzeko lege zorrotzak jarraitu behar dira eta ez da, apenas, istripurik gertatzen. Gibela prestatu edo saltzea ilegala da. Hala ere, urtero gertatzen dira pozoidurak etxean gaizki prestatzeagatik. Akuikultura modernoarekin, pozoitsuak ez diren fuguak haztea lortu dute.

Ohitura moderno kuriosoak ere badauzkate Japonian. Gaur egun ezin da kale askotan erre baina

jatetxe eta tabernetan bai. Kaleetan makina ugari daukate era guztietako produktuak saltzeko: arrautza freskoak, baloiak, otarrain biziak, oliba olioak, atorkiak, korbatak eta, duela urte gutxira arte, erabilitako kuleroak ere bai. Baserritarrek sandia laukiak hazi eta saltzen dituzte (borobilak baino askoz garestiago, noski).

Txakur eta katuak alkilatzen dituzten dendak ere badauzkate, egunero zaindu ezin dituzten jendearentzat.

Eta amaitzeko, nola ez, *Fūun! Takeshi Jō* ("Humor amarillo").



FEMINISMOAK EHUN URTE BETE DITU


Askotan entzun izan da XXI. mendea emakumeen garaia izango dela, azken hamarkada hauetan nolako aldaketa handiak lortu dituzten kontuan hartuta. Oraindik ez dago jakiterik hori horrela izango ote den, baina bistakoa da XX. mendea etxetik ateratzeko borrokaren garaia izan dela emakumeentzat.

Hezkuntza izan zen lehen borroka-eremua. Frantzia, 1861ean lortu zuen emakume batek, lehen aldiz, batxilergoa bukatzea. Japonian 1900ean ireki zuten emakumeentzako lehen unibertsitatea. Egipton 1900ean onartu zitzaizen neskei bigarren hezkuntzako ikasketak egiteko eskubidea. Tunisian ere urte horretan sortu zuten neskeentzako lehen ikastetxea. Emakumeek boto-eskubidea lortzeko gogor egin behar izan zuten borroka. Britainia Handiko politikariak amore ematen hasi ziren. Eskandinaviar estatueta emakumeek lortu zituzten lehen garaipenak. Finlandian, 1906tik aurrera, hautesle izan ziren lehenbizi eta hautagai, gero. Lehen Mundu Gerraren ondorioz kalera atera behar izan zuten, Europako estatu gehienetako emakumeek 1918an eta 1919an lortu zuten botoa emateko eskubidea. Gaur egun, Kuwaiteko emakumeek oraindik ez dute botoa emateko eskubiderik.

“Lan berdina, soldata berdina”

Lehen mugimendu feministak mendebaldean sortu ziren, XIX. mendearen bukaeran, eta lanaren alorra eta eskubide zibikoak izan zituzten helburu. Baina... Suedian beste inon baino emakume ministro gehiago daude. Hala ere, emakumeak diskriminatuta daude, oraindik, lan-munduan. 1979an aukera-berdintasunari buruzko Legea onartu zuten arren, Suediako emakumeek gizonek baino %15 edo %25 gutxiago irabazten dute. Orain dela urte batzuk, emakume ekonomialari batek auzitara eraman zuen bere enpresa, erantzukizun eta prestakuntza berberak izanik, gizonei baino gutxiago ordaintzen ziotelako. Irabazi egin zuen. Baina, balio bereko lan desberdinak alderatzea ez da hain erraza.

Marian Larrañaga
(HABE-IKASBIL-etik ateratako artikulua)



Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan



Debako Udaleko Berdintasun Sailak hainbat ekimen antolatu zituen martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan.

Besteak beste, martxoaren 6an, "Zer da maitasuna" lelopean emakume helduei zuzenduriko bi orduko saioa eskaini zuen Eider Goiburua Lahia-Nahia Sexologia Elkarteke hezitzaileak, Agirre Jauregiko Ispiluen gelan. Martxoaren 8an, urteroko elkarretaratzea egin zen Foruen plazan "Gaiinditu dezagun menperatzen gaituena!" lelopean.

Ekimenekin jarraituz, martxoaren 9an, Sahararen Aldeko Gazteek Saharari buruzko dokumentala eskaini zuten, herriko gazteen ikuspegitik (egin berri duten bidaiako bizi-penak oinarri hartuta). Eta, aurtengo egitarauari amaiera emateko, hilaren 13an, haurrentzako ipuin kontalari lanetan aritu zen Maite Franko, Agirre Jauregian, "Panpinak Aitorrentzat" lana aurkeztuz.

Bestetik, alboko adierazpena adostu eta helarazi digute Udaleko Berdintasun Sailetik.

"Emakume kubatarrak, iraultza bat beste baten barruan" erakusketa egon da Turismo Bulegoan

Martxoaren 1etik 11ra bitartean, Debako Turismo Bulegoan "Emakume kubatarrak, iraultza bat beste baten barruan" izenburuko erakusketa egon da ikusgai.

Bertan, emakumeek Kubako gizartean izan duten eta egun duten lekuari buruzko informazioa jasotzeko aukera izan dute bisitariak. Erakusketak emakume eta gizonezkoen berdintasunaren alde eta mendekotasun eta marjinalizazioaren aurka egin diren politika publikoen berri ematen du. Alde horretatik, egindako lorpenak eta datuak azaldu dira erakusketako paneletan.

Euskadi-Cuba Kubarekiko adiskidetasun eta lankidetzarako



elkartek antolatutako erakusketa izan da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du horretarako.

Adierazpena

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna hurbil daukagun honetan, Debako Udalak gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko duen konpromisoa berretsi nahi du.

Aldaketa garaia bizi dugu Euskal Herrian. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko garaia. Emakumeak aldaketa horren subjektuak izan daitezten politika feminista garatzea ezinbesteko konpromisoa da.

Debako Udalak bultzatuko duen politika feministak honako hau izango du kontuan:

Emakumeok jasaten dugun zapalkuntza egiturazkoa da. Hau da, jendartearen egituraren emaitza da eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Egiturazkoa da patriarkatua erabat errotuta dagoelako gure jendartean eta antolaketa eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako.

Udaletan garatu nahi dugun Politika Feministak estrukturala den arazo bati erantzun nahi dionez, ezinbestean politika integrala izan behar du emakumeen bizitzaren arlo guztietan eragin behar duelako.

Politika feminista emakumeon eskubideetan oinarrituko da. Beste herri eredu baten eraikuntza dugu helburu. Hau da, gizon eta emakumeen arteko harreman eredu berri bat eraiki nahi dugu.

Politika feministak emakumeen gidaritzara eta parte-hartzea bilatuko du. Politika honen definizioa mugimendu feminista eta emakume taldeekin egin behar da. Hauen parte-hartzeak politika feminista erreal definitzea ahalbidetuko du.

Espezifikoki landuz baina zeharkakotasuna ahaztu gabe, martxan jartzen ari garen proiektua oinarri feministetan egituratuko dugu eta gure herrian sortzen ditugun politika guztietan ikuspegi feminista kontuan izango dugu.

Bukatzeko, Debako Udalak, mugimendu feministak antolatuko dituen ekimen guztietara joateko deia luzatu nahi die herritar guztiei.

Asko dugu egiteko eta asko dugu ikasteko. Gure herrian marrazten ari garen aldaketa politiko eta sozialaren izar bihurtu behar dugu politika feminista.

Udaleko Berdintasun Saila

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Lantzeko Inauteria

Eguraldia lagun, inauteritako larunbat arratsaldean, jende mordoxka bildu ginen herriko kaleetan Lantzeko Inauteria ospatzeko.

2006an ospatu genuen azkenekoz inauteri hau, eta ondoren egin ditugu Iñude eta artzaiak eta Kaldereroen inguruak ere.

Ordu eta erdian amaitu zen dena, baina aurretik lan haundia dauka horrek guztiak, taldean bertan prestatu behar direnak, dantzak irakasteko ikastaroa, denei arropak egiteko azalpenak, taldeen arteko koordinazioa...

Idatzi honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari eta Jai batzordeari, behar izan den azpiegiturarako eskaintako diru laguntzarengatik, eta batez ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu gurekin batera egun horretan parte hartu zenuten guztioi: Amaia Zinkunegi aurkezleari (aurkezle lanetaz aparte, Inauterien jatorriari eta Lantzeko inauteriari buruz eskolako gazteei zabaldutako informazioagatik); bide guztian zehar gurekin izan ziren zarpantzar kuadrilla bikainari; Goaz antzerki taldekoei, beste behin ere inauteriko partaideei bizitza eman dietelako, eta beraien prestaketan buru belarri aritu direlako; Juan Luis Barojari, Miel Oxinen burua egiteagatik (ederki egina, portzientol!). Musikari guztiei: Debako Musika Bandari, haiek ere, beste urte batez herria girotzeaz gain, inauteri honetarako bereziak diren musikak prestatu eta gurekin elkarlanean aritzeagatik; Kalez Kale txistulari taldekoei eta musika eskolako musikariei. Eta Lantzeko inauteriko pertsonaia nagusiei lagunduz, txatxo bezala aritu zireten dantzari guztioi: Gure Kaiko bertako dantzari, Musika eta Dantza eskolako dantzari gazteei eta gurekin dantzara atera zireten beste herritar, dantzari guztiei, haur, gazte eta ez hain gazte. GUZTIOI ESKERRIK ASKO!!

Gure Kai Euskal Dantzari Taldea



Ander Salegi



Unai Idiak



Ander Salegi



Unai Idiak



Ander Salegi



Unai Idiak



Unai Idiak

Beldurraren Etxea, disko festa, txokolatada... eskerrik asko!

Kuadrillategiko hezitzaileok 14-15 urte bitarteko gazteoi Beldurraren Etxean eta disko festan egindako ahalegina eskertu nahi dizuegu. Jarrai ezazue halako une zoragarriak prestatzen eta herritarrei eskaintzen, euskaratik eta euskaraz betiere! Bejondeizuela gazteak!

Kuadrillategiko hezitzaileak



Ander Salegi



Ander Salegi



Ander Salegi



Unai Idiakes



Unai Idiakes



Unai Idiakes





Sonia San Jose

Donostian jaio zen 1972an eta Deban bizi da. Historian lizentziatua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Burdin Aroan miaketa eta indusketa proiektu ugari garatu ditu. Gaur egun garai horretako Munoaundiko herri harresituko indusketa ari da zuzentzen Azkoitia-Azpeitian eta doktore tesia burutzen ari da Lenbur Fundazioan (Legazpi), arkeometalurgiarren esparruan. Praileaitz I-eko haitzuloaren indusketa arkeologikoaren zuzendariordea izan da.

Praileaitz I haitzuloa

Hiru urte pasatu dira Praileaitz I haitzuloko indusketa arkeologikoa itxi zenetik. Hiru urte luze. Ikerketa ez dago bukatuta. 2009ko urtarrilaren 31n, indusketaren azkeneko egunean aginte-makila baten zatia azaldu zitzaigun. Paleolitoko pieza berezi bat da aginte-makila eta zintzilarioak baino modernoagoa. Zer ote da azpian?

Ezin jakin, garai horretan itxi egin behar izan genuen-eta indusketa. Esan ziguten ikerketan diru asko inbertitu zutela eta, nolabait, Praileaitzez nekatuta omen zeudela. Europa mailan Paleolito Aroko sinesmenen mundua ezagutzeko, aztarnategirik garrantzitsuenetariko bat da Praileaitz I. Hala diote mundu osoko Historiaurreko espezialistek. Baina politikoentzat, ondare arkeologikoa zaindu egin behar duten kudeatzaileentzat, zer ote da Praileaitz I?

Labarretako margoak aurkitu zirenetik, haitzuloa legez babestuta dago. Babes-maila altuena du, Altamirak edo Lascaux-ek bezala. Eredu bat babesteko, lehenengo mugak ezagutu behar dira, baina Praileaitzen oraindik ez dakigu non bukatzen diren galderia batzuk, lurrez itxita baitaude. Nola babestu ezagutzen ez dena?

Babestu behar dutenek erraz aurkitu dute konponbidea. "Ezagutzen diren hormetatik" babestu eta kito. Miren Azkaratek 50 metroan ezarri zuen babes-muga; Blanca Urgellek eta Antonio Riverak, berriz, 65 metroan. Behin bakarrik galdetu digute indusketa arkeologikoa zuzentzen dugun taldekideei nola babestu Praileaitz I. Hauexek gure erantzunak. Batetik, kobazuloa ezagutu behar da. Nola? indusketa arkeologikoaren bidez. Baina denbora gehiegi zen beraiantzat. Bestetik, babes-eremua handitu, eta horrela lortuko genuke, behintzat, harrobiko fronteak puskatu duen Praileaitz VI haitzuloa babes eremuan sartzea, agian Praileaitz I bera da eta. "Zenbat metrora dago bigarren kobazulo hori?", galdetu ziguten. "80 bat metrora", guk. "Orduan ezinezkoa da, oso urrun dago", haiek. Oso urrun, norentzat?

Eta gainera, epaile batek dio guztiona den ondare arkeologiko honek kalte egiten omen diola Amenabar taldeko Zeleta SL enpresa pribatuari. Ezagutzen ez diren gelak harrobiak puskatuko balitu, ze kalte egingo lioke haitzuloari? Nork ordaindu beharko luke? Nork itzuliko liguke Praileaitz I?

Azkeneko egun hauetan Blanca Urgellek aipatu du ondarea zaintzeak suposatzen duen kosteaz hausnartu beharko dela. Eta nik galdetuko nioke: kontuak garbi ateratzeko zenbat ondare galtzeko prest dago Kultura sailburua?

Sonia San Jose
Historiaurreko Arkeologia Saila
Aranzadi Zientzi Elkarte



Iruñiak: Gipuzkoako Foru Aldundia

BERRIKETAN GAZTEA

2012ko martxoan
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

ATZEGI ELKARTEA



Otsailaren 8an ATZEGI elkartekoen hitzaldia izan zuten DBHko lehen mailakoek. Elkartetik Aloña etorri zen azalpenak ematera.

ATZEGI elkartetik urtero etortzen dira hitzaldi bat ematera, eta adimen urritasuna duten pertsonen buruz hitz egiten zaigu ikasleoi. ATZEGI 1960an sortu zen, eta gaur egun 1.998 familia daude elkartean. Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundea da eta, horrez gain, familien elkartea ere bada.

Elkarte honek hiru helburu nagusi ditu:

1.-Adimen urriko pertsonak bakarrik ez egotea. Toki bat eskaintzea familiei, haien gauzak entzuteko eta ulertzeko prest dagoen jendea ere badela senti dezaten, eta, hala, sentimenduak eta esperientziak elkarri azaldu eta eskubide batzuen alde lan egingo duen talde giroa sortzea.

2.-Garatzeko eta aurrera egiteko aukerak ematea urritasuna duten pertsonen. Horretarako, pertsona horien autonomia garatzeko zerbitzuak eratzen eta moldatzen dira, sortzen diren beharrak kontuan hartuta.

3.-Gizarteak sentsibilitatea izatea kolektibo honen balioaz, eta, hartara, inguru positibo bat

sortzea, atzegizaleagoa, Gipuzkoan diren adimen urriko pertsonen gure gizarteak onartu, balioetsi eta eskubide osoko partaidetzat jotzen dituela sentitzeko bidea izan dezaten.

Institutura honen guztiaren berri ematera Aloña etorri zen. Berak, hasieran, ikasleei euren gustuei buruzko galderak egin zizkien, eta gero, bideoan agertzen ziren adimen urritasuna duten pertsonen erantzunak ere antzekoak zirela ikusi zuten. Azalpen hau guztia PowerPoint baten bidez eskaini zuen. Oso gauza garrantzitsu eta interesgarriak esan zituen: oso garrantzitsua dela beraien ganako gure jarrera, beraien laguntza behar dutelako; gu beti egon behar garela prest adimen urritasuna duten pertsonen laguntzeko...

ATZEGIkoei baliagarria iruditzen zaie ikastetxeetan adimen urritasuna duten pertsonen buruzko hitzaldiak egitea, oso garrantzitsua iruditzen zaielako gazteriarengana ikastetxeen bitartez iristea. Beraz, ikastetxeetara sentsibilizazio lana egitera etortzen dira, eta horixe da Mendata BHI-n ere egin dutena.

Elkartearen inguruko informazio gehiago nahi duenak www.atzegi.org orrira jo dezake.



ELKARRIZKETA

Mendata ikastetxeko lehen mailako ikasleek elkarlana landu dute astebetetz -ordubeteko jarduna egunean-Baikarakoekin (Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa). Gela bakoitzetik hiru ikasle atera ditugu euren iritzia jakiteko: Kimetz Alberdi (K.A.), Izaro Altzibar (I.A.), Maite Bikandi (M.B.), Malen Egaña (M.E.), Julen Izaguirre (J.I.) eta Telmo Soto (T.S.)

“Baikarakoekin landu dugunak gure arteko harremana hobetzeko balio izan du”



Zer gai landu duzue?

M.E. Talde lana eta klase orduetan denok elkarrekin lan egitea.

M.B. Denok elkarrekin jokoak egitea.

I.A. Ondo konpontzea gure artean.

K.A. Gelako jarrera.

T.S. Taldean lan gehiago egitea.

J.E. Taldean konfiantza izatea, eta baita norberak bere buruarengan ere.

Zer ekintza egin dituzue?

M.E. Ariketa batean, binaka jarri ginen, bat begiak itxita. Begiak zabalik zituenak bere laguna gidatu behar zuten ezerekin kontra jo gabe. Horrela, elkar lagunduz.

M.B. eta J.I. Lurrean zeloarekin karratu bat egin zuten, eta ahal genuen pertsona guztiok sartu behar genuen bertan, karratua txikitzen zihoazen neurrian estuago jarri beharra zegoen.

I.A. Binaka jarri ginen, bat begiak itxita. Begiak zabalik zituenak bere laguna soinuaren bidez gidatu behar zuten, bera aurkitu arte.

K.A. Zirkulu batean jarri ginen, bakoitzak paperean

gauzak idazten zituen, eta gero jolasak egin genituen.

T.S. Binaka jarri ginen, bietako bat begiak itxita. Zabalik zituenak laguna pasilloetan zehar gidatu behar zuten.

Gustura sentitu zarete?

M.E., M.B. eta I.A. Bai. Taldean lan egiten genuelako eta, ondorioz, gure arteko harremana hobetu dugulako. Pozik, izan ere klase orduak pasatu ditugu eta horretan.

K.A. eta T.S. Oso gustura sentitu nintzen, klase ordu asko eman ditugulako jokoekin.

J.I. Bai, oso gustura sentitu nintzen. Gainera, barre asko egin genuen.

Zerbait ikasi duzuela uste al duzue?

M.E. eta M.B. Bai, orain hobea da gure arteko harremana.

I.A. Bai, orain jendeak gutxiago bazilatzen du edo gutxiago jotzen du adarra.

K.A. eta T.S. Ez.

J.I. Bai, gure arteko konfiantza handiagoa da.



INKESTA

MUNDUKO HERRIAK

Oraingo honetan munduko leku desberdinak ezagutu nahi izan ditugu, ikasleei nora joan diren eta nora joatea gustatuko litzaiekeen galdetuz.

- 1.-Nora gustatuko litzaizuke bidaiatzea? Zergatik?
- 2.-Espainiatik kanpo, zein lekutara joan zara?
- 3.-Zer gustatu zitzaizun gehien handik?
- 4.-Gustatuko litzaizuke berriro joatea? Zeinekin?
- 5.-Zer irudituz zitzaizun bitxienera?



Aitor Gonzalez:

- 1.- Maldiva uharteetara edo Borabora uharteetara joango nintzateke. Beroa egiten duelako.
- 2.- Mexiko, Portugal, Frantzia...
- 3.- Eskolara ez joateaz gain, hondartzak.
- 4.- Bai, bakarrik edo lagunekin.
- 5.- Ordu aldaketa.



Ainara Osa:

- 1.- Ingalaterrara. Ingelesa gustuko dudalako, eta ikasteko hara joatea gustatuko litzaidakeelako.
- 2.- Mexikon izan naiz, familiarekin.
- 3.- Itsasontzi batzuk, haien barruan mariatxiak zeuden.
- 4.- Bai, nire guraso eta anaiekin.
- 5.-Jende guztiak kalean jaten zuela.



Udane Oartzabal:

- 1.- Ingalaterrara joango nintzateke, gustatzen zaidalako eta gauza berriak ikusteko.
- 2.- Belgika eta Parisera joan naiz, familiarekin.
- 3.- Belgikaz ez dut asko gogoratzen, oso txikia nintzen joan nintzean. Paristik, "EURODISNEY".
- 4.- Bai, lagunekin.
- 5.- Krepe asko jaten zituztela.



Iñaki Amilleta:

- 1.- Dominikar Errepublikara joango nintzateke. Hondartzak politak direlako.
- 2.- Mexiko, Frantzia, Dominikar Errepublika...
- 3.- Hondartzak Dominikar Errepublikatik, eta Eiffel dorrea Frantziatik.
- 4.- Bai, edozeinekin.
- 5.- Bitxienera, adibidez, motor berean lau pertsona igota zihozela, eta kaskorik gabe gainera.



Estibaliz Gorostegi:

- 1.- Amerikara joango nintzateke gustura, nire txikitako ametsa izan delako.
- 2.- Irlandara eta Ingalaterrara.
- 3.- Jende eta kultura desberdinak ezagutzea.
- 4.- Bai, lagunekin.
- 5.- Jantzkerak.



Alex Alonso:

- 1.- Estatu Batuetara joango nintzateke, polita delako.
- 2.- Errusian izana naiz familiarekin.
- 3.- Dena gustatu zitzaidan.
- 4.- Bai, lagunekin joango nintzateke.
- 5.- Hizkuntza egin zitzaidan bitxia.



Unai Sanz:

- 1.- Leku askotara, dena nolako den ikusteko.
- 2.- Portugalera eta Frantziara.
- 3.- Eguzkia dagoela.
- 4.- Bai, nahiz familiarekin nahiz lagunekin joango nintzateke.
- 5.- Hizkuntza desberdinak entzutea.

EGILEAK: ENA ESMORIS, SARA ANTON ETA ANE BAROJA

LANKIDETZA




Institutuko liburutegia eta zenbait departamentu, lankidetzan

Batetik, orri-banatzailaren diseinuaren lehiaketa egin zen abenduan. Irabazleak Ane Redondo, Mara De Maria eta Laura Aranegui izan ziren. Irudian ikus dezakezuen bezala, euskararen aldeko leloa eta marrazkia egin behar izan zituzten.

Bestetik, pasa berria dugun San Balentin lehiaketarako kartel lehiaketa ere egin da Plastika eta Informatikako orduetan. Kartelak institutuan ipini dira, baina oraindik ez dakigu irabazleak nortzuk diren. Eta Amodiozko Gutunen Lehiaketa ere martxan dute Hizkuntza departamentukoek.

DenBora-pasa

**Liburu berriak institutuko liburutegian.
Hauek dituzue horietako batzuen nondik norakoak.
Anima zaitzte eta irakurri!**



Nire turbantearen sekretua (Nadia Ghulam & Agnès Rotger):

“Ama oihuka ari da, gainera erori zaizkidan igeltsu eta zementu zatiak esku asaldatuez kentzen dizkidan bitartean. Haren begiak, izuak hartuta, bizi zantzuren baten bila dabilta zortzi urteko nire gorputzean.

Bonba batek eztanda egin du, oraintxe, etxean. Eta amak nire gainera jauzi egin du, nire gorputzean pizten ari diren garrak bere gorputzaz itzali nahian, besarkada batez berriro ere niri bizia eman nahian. Ez du kontuan hartu bera ere erretzen ari dela, emakume gizona dela, ez dela oso arina; ez ditu kontuan hartu ez kea ez harri koskorak, eta, segundo gutxi batzuetan, besotan atera nau nire hilobia izan zitekeen hartatik. Handik kanpo ikusi nauen arte, eta arnasa hartzen dudala egiaztatu arte, amari ez zaizkio indarrak ahitu. Orduan, dardarka hasi da, kontrolik gabe, eta behin eta berriro errepikatu du nire izena, isildu ezingo balu bezala: “Nadia, Nadia, Nadia, Nadia”. “Nadia, Nadia, Nadia, Nadia”.

Hura izan zen amak Kabuleko gure etxean Nadia deitu zidan azken aldia. Berriro etxe bat edukiko genuenerako, ni familiako gizona izango nintzen.”

La voz dormida (Dulce Chacón):

Madrilgo Ventas kartzelan espetxeratutako emakume talde bat da liburu honetako protagonista. Duintasunez eta adorez jantzita, irainei, torturari eta heriotzari aurre egiteko altxatuko dira emakumeak.



LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TAILERRA 2011-2012

Nerea Agirregabiria
Leire Alberdi
Sara Anton
Ainhoa Azkarate

Ane Baroja
Alaitz Escudero
Ena Esmoris

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

Udazkeneko elikagaiak. Toxinak botatzeko garai egokia



Gizakiok harro sentitzen gara gure espeziearen eboluzioarekin. Noraino iritsi gara? Baina elikagaiei buruz, esan behar da, gure espezieak atzera pausoa egin duela jateko ohituretan, eta, naturarekiko loturan urruntzen ari garela, gure kalterako. Jakiak desitxuratu, refinau eta desnaturalizatu egin ditugu.

Gure dietan animalien proteina gehiegi sartzeak eta elikagai fibrosoak kentzeak ondorio latzak ekarri dizkigu. Robert Jackson doktoreak esaten duenez, "gure elikagaietatik fibra desagertzeak flujo intestinalaren abiadura jaitea dakar eta, ondorioz, proteinak usteltzea eta toxinak sortzea; gainera, hidratoak gehiegi fermentatzen dira intestinoko paretak irriatuz. Guzti horrek zirkulo desegoki batera garamatza, gure gorputzaren intoxikazio kroniko batera digestio aparatutik. Baina digestioaren abiadura jaisteak ez du bakarrik fermentazioa eta deskonposizioa sortzen; gainera, denbora ematen dio odolari sortutako toxina horiek xurgatzeko eta gure gorputza kutsatzeko eta gaixotzeko".

V.E. Irons, koloneko espezialista batek, beste hau esaten du: "Kasu askotan, elikagaiak denbora asko egiten dute gorputz barruan. Elikagai hauek usteldu eta kolonean gelditzen dira, kolona 'putzu

beltz' bihurtuz".

Horregatik, udazkenean, beharrezkoak dira elikagai orekatuak. Udazkenea da, neguko atsedenen aurretik, uzta biltzeko garaia (frutak, berdurak, fruitu lehorrak eta zekaleak. Adibidez mahatsa, sagarra, txermena, tomatea, intxaurra, haziak, arroza, artoa eta kalabaza ugariak dira).

Aldaketak bizitzan inportanteak dira eta osasuna mantentzeko urtaro bakoitzeko jakiak aprobetxatzea komeni da. Urtaro honetan, zuhaitzetan adibidez, enbor eta adarretan zegoen energia eta aktibitatea desagertzen dira eta sustraietan jasotzen; sustraietako energia geldoa eta sakonagoa da.

Hauek dira garai horretan berotasun gehien emango diguten, bilgarriagoak, sakonagoak eta indarberritzaileagoak izango diren, elikagaietako batzuk:

-Zekaletan: arroz integrala, mijoa, oloa (abena) eta kinoa.

-Zopak: Kremosoak eta gozoak berdura borobilekin (tipula, kalabaza, azalorea...) eta alga pixka batekin.

-Berduratan garaikoak eta sustrai-dunak batez ere: azenarioa, errefauak, arbia, tipula, kalabaza, azalorea, e.a., eta hosto berde pixka batekin.

-Egosterakoan: lehenengo su

indartsua eta gero poliki-poliki (20 m.) su bajaran. Lurrunean egitea ondo dago nutrienteak hobeto mantenduko direlako.

-Kirola egitea ere oso ona da gure azala garbitzeko eta gosea egiteko.

Gaurkoan ere aholku hutsak ematen joan zait espazioa, baina inportantea iruditzen zait horretaz jabetzea ohiturak aldatzeko eta makrobiotikako ohituretan sartzeko; beraz, gehiago jakin nahi baduzue edo errezetak ikusi nahi badituzue, erreferentzia hauek emango dizkizuet:

-“Makrobiotika denontzat”, Egoitz Garro nafarrarena.

-“La Nueva Cocina Energética”, Montse Bradford-ena, ondo egituratutako liburua (gainera liburutegian daukazu).

-“La salud en la alimentación”, Olga Cuevas-ena.

-www.euskalnet.net/econat, Jesus Romeroren eskolako informazio praktikoa.

-www.elenacorrales.com, Elena Corrales (medikuntza integrala). Nafarroako Olatz herria dauka kontsulta.

Gure izpiritua ere osasuntsu egoteko zerbait pozgarria eman behar diogu noizbehinka, eta garaian garaikoa. Nireari ondo etorriko zaio sagardotegi batera joatea!

Juanma Oiartzabal

Udaberriko planik bai? Adi! Debanaturak eskaintza oparoa dakar eta!

Debanaturak hainbat ekintza antolatu ditu udaberri honetarako:

-“**Debabarrenako historiaz blai!**” lelopean, apirilaren 1ean (igandean) Paleolitoko ibilbidea (eta Ekainberrira bisita) egiteko aukera izango da. Apirilaren 22an, berriz, Debako burdinolen ibilbidea egingo da (Elgoibarko Makina-Erreminta museoa ere bisitatuz).

-Apirilaren 10etik 13ra, **Gazte-multiabentura oporraldiak** antolatuko dituzte, abentura jarduerak eta Ingurumen

sentsibilizazioa uztartuz. Deban gauzatu diren oporraldi irekiek 60 euroko kostua izango dute. Piriniotako oporraldia ere egongo da eta taldeentzako deskontuak egongo dira.

-Apirilaren 29an, **Ingurumen boluntariotzako jarduera** gauzatu nahi da Deba ibaiaren erriberan, “gure erribera guztion artean berreskuratzen joan ahal izateko”.

-**Ikastaroak:** apiriletik ekainera bitartean ikastaro ezberdinak eskainiko

dituzte (izena emateko epea martxoaren 26an amaituko da):

- Autokontsumorako baratza-ekologikoko hastapen ikastaroa (klase teoriko eta praktikoa).
- Sendabelarren ikastaroa.

Aipatutako ekintzetan parte hartzeko izen-emate epea irekita dago jadanik. Informazio gehiagorako: debanatura@hotmail.com, www.debanatura.net edota 695 783 656 telefonoa.

Animatu eta parte hartu!!

Deban ospatu zen Gipuzkoako Batel Ligako seigarren jardunaldia



Debako ibaiak ezohiko irudia eskaini zuen pasa den otsailaren 25eko arratsaldean, Gipuzkoako Batel Ligako seigarren jardunaldia ospatu baitzen bertan.

Lehendik ere beste sei estropada antolatuta genituen Debako Arraun Lagunek eta Mutrikuko Arraun Taldeak, baina arraun zaletasuna berpizteko erronkari helduta, oraingoan elkarlanean Gipuzkoako Batel Ligako seigarren estropadaren antolakuntza lanetan aritu gara buru-belarri.

Txapelketak sei proba izan zituen orotara, eta bi orduz luzatu zen. Hona hemen emaitzak:

- 1.-Haur kadeteak (neskak): **Getaria irabazle.** -Luzera: 1.000 metro-.
- 2.-Infantilak: **Tolosaldea irabazle.** -Luzera: 1.000 metro-.
- 3.-Kadeteak (mutilak): **Hibai-ka irabazle.** -Luzera: 1.500 metro-.
- 4.-Jubenilak (neskak): **Illunbe irabazle.** -Luzera: 2.000 metro-.
- 5.-Jubenilak (mutilak): **Illunbe irabazle.** -Luzera: 2.000 metro-.
- 6.-Seniorrak (mutilak): **Orio irabazle.** -Luzera: 2.000 metro-.

Gipuzkoako Batel Ligako seigarren topaketan hirurogeita hamabost tripulazio aritu ziren lehian; hamalau talde-tako 375 bat arraunlari guztira. Gehiago ere izan zitezkeen, gainera! Izan ere, egun berean Orion Arraun Eguna ospatu zenez, han antolatutako probetan parte hartzen aritu behar izan zuten hainbat eta hainbat ontzik (hamartik hogeira bitartean). Hori guztia kontuan hartuta, Gipuzkoako Batel Ligan lehiatzen diren arraunlarien kopurua benetan ederra dela nabarmendu nahiko genuke, guztira 400 lagunenu bueltan baitabilza parte hartzen.

Gaur egun, Debak ez dauka berez batel propiorik, baina herriko hainbat mutil gazte Zumaiako arraun taldeko kide dira, eta talde horretan Mutrikuko jendea ere aritzen da. Herriko neska batzuk patroï moduan ere aritu ohi dira, gainera.

Besterik gabe, lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu Amilaitz, Kaioa eta Debako Udalarari.

Debako Arraun Lagunak



Irudiak: Ander Saleg

Bale-arrantzaren garrantziaz aritu zen Jose Antonio Azpiazu historialaria Kultur Elkartearen

Denbora igaro ahala, ahazturik geratzen dira gure arbaso arrantzaleek eta itsasgizonen egindako hainbat eta hainbat ekintza edo jarduera. Eta, zentzu horretan, Jose Antonio Azpiazuk lezio polita eman zuen pasa den otsailaren 29an Kultur Elkartearen eskaini zuen hitzaldian.

Euskal balea, eta zehazki bale-arrantza, izan zituen hizpide, betiere jarduera horrek Deban zein euskal kostaldeko beste hainbat herritan izan zuen garrantzia gogoraraziz. Hori guztia hainbat herritako zigilu edo armarrietan geratu da islatuta, baina Azpiazuk ondo adierazi bezala, "hortik harago apenas dugu memoria historikorik honi buruz. Arrantza honi buruzko museo edo zentrorik ere ez da ia-ia, gure historia ez dugulako gehiegi baloratzen; baina benetan inportantea izan zen balea eta haren arrantzaren inguruan sortutako bizimodua". Balearen arrantzak XVI. mendearen erdialdera jo zuen goia. Azpiazuren esanetan, garai hartan Ternuako izotz artean bakarrik 2.000 euskaldun inguru ari ziren lanean bale-industrian. Itsasgizonen zetzazoaren arrantzari zegozkion alderdi guztiak lantzen eta ekoizten zituzten, baita



saldu ere. Besteak beste, arpoi-teknika egokitu zuten, eta traineru aproposak sortu. Balearen koipea argia egiteko baliatzen zuten; esperma, ukenduak egiteko; hezurak eraikuntzarako, eta bizarrak garaiko plastikotzat erabiltzen ziren (jantzigintzan, kortseak egiteko, adibidez).

Baleak ekonomikoki zein sozialki izan zuen esanguraz jabetzeko, Jose Antonio Azpiazuk dokumental batekin hornitu zuen bere hitzaldia.

Pasa den abenduan ere Deban izan zen Azpiazu historialaria, Javier Elorzarekin batera idatzi duen "Deba, una villa de vocación marinera y mercantil (siglos XV-XVII)" liburua aurkezten. Argitalpena Patxi Aldabaldetrecu zenaren omenez antolatutako bekaren ondorioz plazaratu dute, eta bertan ere pasarte oso bat eskaini diote baleari.

Gaztelekuko kideak Txuri Urdinen eta Lasturren



Inauterien bueltan antolatutako ekime-
nez gain, otsailean Gaztelekuko kideek
aisialdiaz gozatzeko irteera ezberdinak
egin zituzten. Besteak beste, Donostiako
Txuri Urdin izotz jauregira joan ziren



arratsalde batez, eta Lasturko aterpetxe-
an ere gau bateko egonaldia egin zuten
(talo ikastaroan parte hartzeko aukera
izan zuten bertan). Goiko bi argazki
hauek bidali dizkigute *Berriketan*-era.

Ander Hermostilla kadeteak lortu zuen garaipena Deba Saria txirrindulari lasterketan

Alimco taldeko Ander Hermostilla irabazi zuen martxoaren 3an eginda-
ko Deba Saria txirrindulari kadeteen
lasterketa. Bigarren postuan Boris
Campóo (Burunzazpi taldekoa) geldi-
tu zen, eta Julen Irigoyen (Andoain-
go taldekoa) izan zen hirugarrena.
Nesken kategorian, Caja Rural talde-
ko Lierni Lekuona gailendu zen.
Taldea, bestetik, Alimco izan zen
nagusia.

Amaikak Bateko txirrindula-
ritza taldeak antolatutako lasterketa-
ren 34. edizioan, 111 parte-hartzaile
kadete aritu ziren lehiatzen, tartean zor-
tzi neska, eta guztira 59 lagunek lortu
zuten 52 kilometroko ibilbide osoa
egitea.

Bestetik, martxoaren 31n
junior mailako txirrindularien txanda
izango da, Amaikak Bat Txirrindula-
ritza Saria jokatu da eta. Hitzordua
10:15ean jarri dute, eta 86 kilometro-
ko ibilbidea egin beharko dute.

Igon Mantzidor, nagusia Mendaroko II. Arnoateko Igoeran

Mendaroko Aingeru Guardako jaien
baitan antolatutako II. Arnoateko
Igoera jokatu zen martxoaren 3an, eta
Igon Mantzidor debarra izan zen
garaile, 4,5 kilometroko ibilbidea 21
minutu eta 55 segundutan osatu bai-
tzuen korrikalariak. Helmugara biga-
rren postuan iritsi zena Unai Bengoa
itziartarra izan zen (22:44).

Arnoateko Igoeran 26 per-
sona aritu ziren lehiatzen; iazko edizio-
an baino zortzi lagun gehiago.
Aurten ere, parte-hartzaile guztiak
gizonezkoak izan dira.

Debako hondartzan duna bat sortzeko proiektua

Azken urteetan Debako hondartzako
hareak atzera egin du nabarmen eta
metroak irabaziz pasealekura iristear
dago. Hori dela eta, Foru Aldundiak ego-
era aztertu eta harea pasealekura sartzeko
oztopatutako duen duna bat sortzeko
proiektu pilotua burutuko du.

Debako hondartzak dinamika
eoliko tipikoa azaltzen du, ipar mende-
baldeko haizeak ekialderantz garraiatzen
du harea eta ondorioz erlazonaturik dau-
den bi arazo sortzen dira: alde batetik

harea pasealekura sartzeko da eta bestetik
hondartzako hare bolumena galduz doa.

Proiektu honen bitartez, arazo
horiei irtenbide iraunkor eta naturala
emango dien duna sistema bat birstortu
eta babestu nahi da, berezko dinamika
izango duen 150 metro luze eta 20 metro
zabaleko landa eremua sortuz. Guztira,
3.000m karratu izango ditu, eta metro
karratuko 10 landare landatuko dira; hau
da 30.000 landare inguru.

Egitasmoa erabilera publikoare-

kin guztiz bateragarria da, azalera txiki-
tuko da baina erabiltzaileok nahikoa leku
izaten jarraituko dugu. Mantenu minimo
bat eginda hondartzak atzera egitea eki-
din eta hondartzaren kalitatea hobetzea
lortuko da.

Erabiltzaileentzat informazio
panelak jarriko dira eta landaketan herri-
ko ikastetxeko ikasleek parte hartuko
dute. Proiektu honen aurrekontua 17.100
eurokoa da eta Foru Aldundiak ordain-
duko du osorik.



Agenda

Martxoak 17, larunbata

-13:00. **Debako Musika Bandako bazkideen omenezko kontzertua**, Elizako klaustroan. Ondoren, bazkaria eta dantzaldia.

Martxoak 23, ostirala

-19:00. "Herrira" mugimenduaren hitzaldia, Kultur Elkartearen.

Martxoak 24, larunbata

-12:00. **Paella lehiaketa**, Katekesiak antolatuta. Estalitako pasealekuan.

-Iluntzean, meza ondoren. **Aitzuri Abesbatzak udaberriko kontzertua** eskainiko du Elizan.

-**Sagardotegira Gaztetxearekin**. Izen-ematea Aitor Tabernan edo Gaztetxean bertan, martxoaren 20a baino lehen.

Martxoak 25, igandea

-12:30. **Haur krosa**, Katekesiak antolatuta. Kioskoan.

Martxoak 31, larunbata

-10:15. XXXIX. Amaikak Bat Txirrindularitza Saria.

Apirilak 1, igandea

-**Paleolitoko Ibilbidea** (Debanaturaren eskutik).

Apirilak 5-9

-**Aste Santua**.

Apirilak 7, larunbata

-**Burdinolen Ibilbidea** (Debanaturaren eskutik).

Apirilak 10-13

-**Gazte-multiabentura oporraldiak** (Debanaturaren eskutik).

Erakusketak Turismo Bulegoan

-**Adurizen pintura** erakusketa. Martxoaren 15etik 25a bitarte.

-**Apolinar Aldalurren pintura erakusketa**. Martxoaren 30etik apirilaren 12a bitarte.

***Debako Turismo Bulegoko ordutegia:** Astelehentik ostegunera: 10:00-14:00; ostiral eta larunbatetan: 10:00-14:00/17:00-19:30; igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00.

Ikastaroak

-**Familientzako sukaldaritza ikastaroa**, Debako Udaleko Euskara Sailak antolatuta. Apirilaren 10etik 13ra bitartean eskainiko da ikastaroa. Informazio gehiago: 943 19 28 40 telefono zenbakian edo eus-kara@deba.net helbide elektronikoaren bitartez.

-**UEUK udaberriko ikastaroak antolatu ditu Eibarren**. Hamar ikastaro izango dira guztira, bi jakintza alorretan sailkatuta -informatika eta teknologia berriak, zein giza eta gizarte gaiak-. Informazioa: 943 82 14 26 telefono zenbakian edo www.ueu.org atarian.

Hitzordu bereziak

-**Greba orokorra**. Martxoak 29.



ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta EHNE sindikatuek greba orokorrerako deialdia egin dute Espaniako Gobernuak onartutako lan erreformaren kontra.

-**Aberri Eguna 2012**.

Independentistak Sareak deitutako Aberri Eguna ospatuko da apirilaren 8an, Iruñean. Egun osoko egitaraua antolatzeari aurreikusten dute.



Lehiaketak

-**IV. Elkar Ipuin eta Ilustrazio Lehiaketa**. Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeari du helburu. Bi modalitate

ezberdin antolatu dira: ipuina ilustratu eta ilustrazioa ipuin bilakatu. Informazio gehiago: www.elkar.com.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201
BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890



22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikan.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30

OHARRA:

Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera Deba, Mendaro, Mutriku eta Sorluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurretik. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.

ABEL
Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net

JAR EZAZU ZURE
PUBLIZITATEA
ALDIZKARIAN!

berriketan@zuhatza.com



haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



TAILAGILEA

Zuriñe Gredilla Kareaga

Kalbeton Zumardia, 5
Tel.: 666 720 313
txirbila@gmail.com
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 beheha - 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana




JANTZIDENDA
LERSUNDI KALEA, 37
20820 DEBA



BURU - ZURI Taberna

- Oartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia

Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Udaberria ate-joka!



*“San Jose lorak, zenbat eta lehenago,
antxoar arinago”*